



ENTREGATU BEHARREKO JUSTIFIKAZIO-DOKUMENTAZIOARI ETA LAN-EGOERAREN ALDAKETARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

1. ORDEZKAPENAK EGITEKO AUKERAK

1.1. Eman beharreko hizkuntza-eskakizuna

Eman beharreko hizkuntza-eskakizuna une honetan egiaztatuta duzun eta Hezkuntza Sailaren datu-basean erregistratuta dagoena baino handiagoa bada, eman nahi duzun hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria aurkeztu beharko duzu.

1.2. Irakaskuntza hirueledunen aukera

Eskatzen den titulazioa ez badago Hezkuntza Sailaren datu-basean erregistratuta, aurkeztu egin beharko duzu.

Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuan (EHAA 2012/05/29) ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen hautatu ahal izango dute aukera hau:

- Filologia, Filosofia eta Letretako (Filologia atala) eta Itzulpengintza eta Interpretazioa Lizentziatura, eskatutako hizkuntzan, edo Gradu baliokidea.
- Itzulpengintza eta Interpretazioa diplomatua eskatu duzun hizkuntzan.
- Eskatu duzun hizkuntzan atzerriko hizkuntzan gaikuntza edo espezialitatea duen maisua.
- Dagokion hizkuntzan Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo handiagoa, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskineko titulu edo ziurtagiriren baten bidez egiaztatuta, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren bidez eguneratua (EHAA, 2022/07/05).

1.3. Zerrendak

a) Aurkeztu titulazio eta/edo prestakuntza pedagogiko eta didaktiko berria, beti ere izena eman duzun zerrenda berrietan sartzeko gaituko duena, "Gehitu beste zerrenda batzuk titulu berria aurkeztuta" atalaren bidez, kontsulta egiteko baimena eman izan ezik.

Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzeko moduari dagokionez, kontsultatu indarrean dagoen 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3 artikulua. Kontsultatu bertsio eguneratua hemen:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_d_cand_sust_normativa/eu_def/adjuntos/Orden_27_agosto_2012_26_02_2019_e.pdf

b) Erlijio katolikoaren zerrendaren kasuan:

- Erlijio-zerrendan sartuta bazeunde eta, behin-behinekoz, hala jasota badago 2026/2027 ikasturterako izangai-fitxan, bertan jarraitu nahi baduzu, Missio Canonica berritzeko eskatu beharko duzu, alegazioak aurkezteko epearen barruan. Missio Canonica lanean ematen jarraitu nahi duzun lurralde historikoko erlijio-agintaritzak emango du, honako mezu elektroniko hauen bidez:

Araba/Álava: educacion@diocesisvitoria.org

Bizkaia: hezkuntza@bizkeliza.org

Gipuzkoa: irakaskuntza@elizagipuzkoa.org

- Erlijio-zerrendan lehen aldiz izena eman nahi baduzu, edo zerrenda horretako beste lurralderen batean, Missio Kanonikoa edo baimena eskatu beharko duzu aurreko puntuan adierazitako posta elektronikoetan. Izena emateko, Hezkuntza Saileko web orrian argitaratutako Gidan adierazitako jarraibideen arabera egin behar duzu; eta maila eta lurralde historikoari dagokion Missio Kanonikoa erantsi beharko duzu ("Dokumentazioa entregatzea" atalean, eta horren barruan "Ordezkatzeko aukerak aldatzea" atalean).

c) Gorputz-hezkuntzako zerrendaren kasuan: kirol-teknikariren titulazio jakin batzuk izanez gero, kirol-irakaskuntzako moduluak eman ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Kirolene zentroan (Durango, Bizkaia). (Ikusi dokumentu honen amaieran eranskina, tituluen zerrenda jasotzen duena). Egiaztatzeko, titulu horien kopia aurkeztu beharko da; edo, bestela, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Kirol Kontseilu Gorenaren bidez egindako homologazioa, edo alegatu eta kontsultarako baimena eman ahal izango da.

2. IZANGAIEN LAN-EGOERAK 2026/2027 IKASTURTEAN

2026/2027 ikasturteko birbaremazio-prozesuan, ezabatu egiten da izangaien fitxako lan-egoerari buruzko informazioa, bai eta prozesu hori eskatzean lan-egoera aldatzeko aukera ere.

Izangai bakoitzak 2026/2027 ikasturterako izan nahi duen lan-egoera aldatu ahal izango da abuztuaren erdialdetik aurrera Ordeztaguneko atariaren lan-egoera aldatzeko funtzionalitatearen bidez, behin plataforma ikasturte berrirako irekitzen denean (eta betiere abuztuaren amaieran egingo den ikastaroko lehen eskaintzaren aurretik).

COCUren (ikasturte hasierako plazak esleitzeko prozesua) lan-egoerari dagokionez, prozesu horretan horretarako ezartzen den epearen barruan aldatu ahal izango da. Hurrengo jakinarazpenetan zehaztuko da nola kudeatu ahal izango den COCUren lan-egoera, eta zer lotura duen birbaremazioan dagoen izangaiaren lan-egoerarekin.

3. MEREZIMENDUAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA (Ikusi merezimenduen baremoaren I. eranskina)

OHARRA: LAN-BIZITZA BEHIN BAKARRIK AURKEZTU BEHAR DA, ERANTSITAKO IRAKASKUNTZA-, HEZKUNTZA- ETA/EDO LAN-ESPERIENTZIA GUZTIA EGIAZTATZEKO.

3.1. Irakaskuntzako esperientzia

Ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko:

- Beste autonomia-erkidego batzuetakoak: izendapena edo kontratua eta kargu-uztea, edo, hala badagokio, zerbitzu-orria.
- Europar Batasunaren barruko edo kanpoko estatuetakoak: beste autonomia-erkidego batzuetako zerbitzuak bezala egiaztatuko dira. GAINERA, dagokion hezkuntza-administrazioaren dokumentua aurkeztuko da – zinpeko itzulpenarekin batera –, beti ere egiaztatzeko ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntzak arautuak direla.

Baimendutako ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:



- Lan-kontratu osoa (ez da baliozkoa izango "kontratuaren jakinarazpena") edo ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, zerbitzuen iraupena eta irakaskuntza zer mailatan eman den jasotzen duena (EAEko baimendutako ikastetxe pribatuaren kasuan ez da beharrezkoa Ikuskaritzaren oniritzia izatea, zeina Hezkuntza Sailak eskatuko baitu zuzenean)
- Lan-bizitza (eguneratua).

3.2. Hezkuntza-esperientzia

Haurreskolak Partzuergoan haur hezitzaile gisa lan egin duten pertsonak, beti ere zerbitzu horien zenbaketa hautagai-zerrendan agertzen ez bada edo azken urteko zerbitzuen zenbaketa falta bada (**2024ko irailaren 1etik 2025ko abuztuaren 31ra**), on-line baimena eman ahal izango dute Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/> - "Identifikazio-datuak". Horrela, Hezkuntza Sailak zerbitzu horiei buruzko datuak kontsultatu ahal izango ditu. Horrela, ez da zerbitzu horiek justifikatzeko dokumentaziorik aurkeztu beharko eta Hezkuntza Sailak Partzuergoaren eskutik beharrezko datuak jaso ahal izango ditu.

Baimenik eman ezean, izangaiak Hezkuntzako sailburuaren 2019ko otsailaren 20ko Aginduaren I. eranskineko 1.3.b atalean adierazitako dokumentazio edo egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte (EHAA, 2019/02/26).

Aipatutako Partzuergotik kanpo lan egin dutenek ezin izango dute adierazitako baimena eman, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Administrazio publikoak edo pertsona kontratatzaileak emandako ziurtagiria, haur hezitzaile gisa zerbitzuak eman direla eta zein alditan izan diren adierazten duena, edo kontratuaren fotokopia soilak.
- GSDOk emandako ziurtagiria (2025/08/31n eguneratua).

3.3. Prestakuntza akademikoa

Betekizun moduan alegatutako tituluaren espediente akademikoaren batez besteko nota baloratzen da ("Merezimenduen baremoa" I. eranskineko 2.1 atala).

Gainera, beste lizentziatura batzuk, graduak, diplomaturak, masterreko titulu ofizialak eta doktoregoak baloratzen dira (I. eranskineko 2.2tik 2.5era bitarteko atalak). Atzerrian eskuratutako tituluaren kasuan, homologazioa edo lanbide-kualifikazioaren aitortzea aurkeztu beharko da.

3.4. Espezialitateko lan-esperientzia

Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoari eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailerreko maisu-maistren kidegoari erreserbatutako irakasgaiei soilik aplikatu dakieke, eta izangaiak beharrezko titulazioa duen egunetik hasita.

Hiru agiri hauek aurkeztu dira:

- Enpresak emandako ziurtagiria, zerbitzuen iraupena adierazten duena, edo kontratua. Aurkeztutako dokumentuak egindako lana zehaztu beharko du.
- GSDOk emandako lan-bizitza (2025/08/31n eguneratua).
- Administrazioaren mendeko ikastetxe publikoetan irakasle gisa egindako jarduerak eta bigarren jarduerak bat bateragarriak direla onartzen duen ebazpenaren kopia, jarduerak hori aldi berean egin bada.

Autonomo gisa zerbitzuak eman badira, gainera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) alta emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

3.5. Musika-jarduerak/Jarduerak artistikoa

Musika-irakaskuntzako (Kontserbatorioak) edo arte-irakaskuntzako espezialitateetan izena emanda duten izangaiak bakarrik da baimagarriak.

4. BESTE DATU ETA/EDO ALEGAZIO BATZUK

Hautagaiaren fitxan adierazitako merezimenduen baremazioarekin ados ez daudenek "beste datu eta/edo alegazio batzuk" atala bete beharko dute. Hemen, zein atalekin ados ez dauden zehaztu eta dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztuko dute.

5. NAHITAEZKO ERRETIROAK

2025/2026 ikasturtean nahitaezko erretiroa hartzeko adinera iritsi eta jardunean jarraitu nahi dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 2025/2026 birbaremazio-prozesua hasteko ebazpenaren hirugarren xedapenean adierazitako epean jardunean jarraitzea eskatzen dutenak eta, gainera, aipatutako adina betetzen den egunetik aurrera izendapen jarraituak dituztenak.
- 65 urterekin, gizarte-aurreikuspeneko erregimena arautzen duten arauen arabera, pentsioaren % 100 sortzeko behar diren zerbitzu- edo kotizazio-urteak ez egiaztatzea.

Zerbitzu aktiboan jarraitzea ezin izango da inola ere luzatu 70 urtetik gora edo pertsona horrek urte bakoitzean dagokion erretiro-pentsio maximoaren onuradun izateko beharrezko baldintzak betetzen dituen unetik aurrera.

Jardunean jarraitzeko, birbaremazio-prozesuaren aplikazio informatikoaren "Beste datu eta/edo alegazio batzuk" atalean eskatu beharko dute, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiria aurkeztu (lan-bizitza).

6. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DEN BESTE HIZKUNTZA BATEKO DOKUMENTAZIOA

Beste hizkuntza batean dagoen dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean egindako itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko da. Hau, zinpeko itzultzaileak egin edo dagokion kontsulatuak edo bulego diplomatikoak balioztatua egon beharko da.



ERANSKINA / ANEXO

Modalitatea / Espezialitatea Modalidad /Especialidad	Behar den Titulua Título requerido
Saskibaloia / Baloncesto	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Saskibaloian Técnico Deportivo Superior en Baloncesto
Atletismoa / Atletismo	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Atletismon Técnico Deportivo Superior en Atletismo
Futbola / Fútbol	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Futbolean Técnico Deportivo Superior en Fútbol
Areto-Futbola / Fútbol Sala	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Areto-Futbolean Técnico Deportivo Superior en Fútbol Sala
Eskubaloia / Balonmano	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Eskubaloian Técnico Deportivo Superior en Balonmano
Judoa / Judo	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Judoan Técnico Deportivo Superior en Judo
Eski Alpetarra / Esquí Alpino	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Eski Alpetarrean Técnico Deportivo Superior en Esquí Alpino
Snowboard / Snowboard	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Snowboard-ean Técnico Deportivo Superior en Snowboard
Bela Aparailu Fijoarekin / Vela con Aparejo Fijo	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Aparailu fijoan Técnico Deportivo Superior en Vela con aparejo Fijo
Urpekaritza / Buceo	Eskafandra autonomoa duen Kirol-Teknikaria Urpekaritzan Técnico Deportivo en Buceo deportivo con escafandra autónoma
Salbamendu eta Sorospena / Salvamento y Socorrismo	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Salbamendu eta Sorospenean Técnico Deportivo Superior en Salvamento y Socorrismo
Saka / Barrancos	Kirol-Teknikaria Sakan Técnico Deportivo en Barrancos
Mendi Ertaina / Media Montaña	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Goi Mendian Técnico Deportivo Superior en Alta Montaña
Goi Mendia / Goi Mendia	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Goi Mendian Técnico Deportivo Superior en Alta Montaña
Eskalada / Escalada	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Eskaladan Técnico Deportivo Superior en Escalada
Piraguismoa ur bizietan / Piragüismo aguas bravas	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Ur Bizietako Piraguismoan Técnico Deportivo Superior en Piragüismo de Aguas Bravas
Piraguismoa ur lasaietan / Piragüismo aguas tranquilas	Goi Mailako Kirol-Teknikaria Ur Lasaietako Piraguismoan Técnico Deportivo Superior en Piragüismo de Aguas Tranquilas
Jolas-Piraguismoa Ur bizietako Gida / Piragüismo Recreativo Guía de Aguas Bravas	Kirol-Teknikaria jolas-Piraguismoan Ur Bizietako Gida Técnico Deportivo en Piragüismo Recreativo Guía de Aguas Bravas